



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko uztailaren 4a

99. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Mahaiaren erabakia, 2017ko ekainaren 26koa, Nafarroako Parlamenturako Euskara Plan bat taxutzeari buruzkoa (2. or.).

H SAILA:

**Bestelako testu arau-emaileak:**

—Nafarroako Parlamentuan hizkera ez sexista erabiltzeko gida (3. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Mahaiaren erabakia, 2017ko ekainaren 26koa, Nafarroako Parlamenturako Euskara Plan bat taxutzeari buruzkoa.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko ekainaren 26an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak zenbait erabaki hartu zituen Nafarroako Parlamenturako Euskara Plan bat taxutzeari buruzkoa –2015eko irailaren 28koa, 2016ko azaroaren 14koa eta 2017ko maiatzaren 15ekoa–. Horrekin lotuta, eta plan hori egiteko kontratua lizitatzeko, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 37. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

**1.** Nafarroako Parlamentuko Euskara Planak honako helburuak izan behar ditu:

– Nafarroako Parlamentuak, zerbitzu zentral den aldetik, ahalbidetuko du gaztelania eta euskara erabili ahal izatea herritarren eta haien ordezkarien zerbitzurako hizkuntza gisa.

– Nafarroako Parlamentuak bidea emanen du gaztelania eta euskara berdintasun-mailan ager daitezen bere barne- eta kanpo-komunikazio guttietan, errotulazioan eta irudi korporatiboan, euskarria edozein dela ere.

– Nafarroako Parlamentuak ahalbidetuko du gaztelania eta euskara lan-hizkuntza gisa erabili daitezen erakundearen barruan.

– Nafarroako Parlamentuak euskararen erabilerara eta ikusgaitasuna sustatuko ditu Nafarroako Parlamentuaren jardunaren osotasunean.

**2.** Helburu horiek lortze aldera, Nafarroako Parlamentuak zilegi izanen du eskura dituen tresna metodologiko ezberdinak baliatzea, hala nola Erreferentzia Marko Estandarra (EME), zeinak era hierarkizatu, argi eta errazean sailkatzen baititu kasuko erakunde edo organizazioak euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko neurriak aplikatzeko balizko lan-eremuak.

**3.** Kudeaketa-unitateari dagozkion kontratua exekuzioaren gainbegiratze- eta ikuskapen-ahalmenak galarazi gabe, urte anitzeko planaren prestaketaren eta garapenaren esleipen-hartzaile den enpresarekiko harremanez eta harekin jarraipena egiteaz arduratuko dena Nafarroako Parlamentuko Mahaia izanen da. Mahaiak, diagnosi fasean planteatzen diren egoerak ikusita, zehaztuko ditu planaren epe laburreko eta ertaineko xedekak, betiere erabaki honen 1. puntuari ezarritako helburu orokorrak betetzera bideratuta.

**4.** Zerbitzu Orokorrei eta Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzuari agintzea Nafarroako Parlamenturako Euskara Plan bat taxutzeko kontratazioaren espedienteari berrekin diezaioten, arestiko jarraibideak ezarri ahal izatea ahalbidetuko duena.

**5.** Agintzea erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2017ko ekainaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

**H saila:**  
**BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK**

---

## **Nafarroako Parlamentuan hizkera ez sexista erabiltzeko gida.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Berdintasun Planaren talde sustatzaileak proposaturik, Legelari Nagusiak Nafarroako Parlamentuan hizkera ez sexista erabiltzeko gida igorri dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, honek onetsi dezan.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 37. artikuluekin bat, honako hau ERABAKI DA:

**1.** Nafarroako Parlamentuan hizkera ez sexista erabiltzeko gida onestea, eta zabaltzea Legebiltzarraren zerbitzuko langileen eta foru parlamentarien artean, erakundean garatzen duten jardueran erabil dezaten.

**2.** Erabaki hau eta Nafarroako Parlamentuan hizkera ez sexista erabiltzeko gida Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezten agintzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Nafarroako Parlamentuan hizkera inklusiboa erabiltzeko gida**

### **1. SARRERA**

Pertsonok komunikazio-tresna gisa erabiltzen dugu hizkuntza, eta haren bidez egituratzen dugu gure pentsamendua. Hizkuntzaren bidez gure ideiak, emozioak eta pentsamenduak transmititzen ditugu, eta deskodetzen ditugu halako moduan non gure arteko harremanak garatzen ditugun testuinguru desberdinetan ulertuko baitira. Horretarako, aldatzen, eguneratzen eta eboluzionatzen doa hizkuntza, erabiltzaileen beharrezan araberak.

Ez dago hizkuntza bakar bat. Gizarte-maila edo -talde bakoitzaren baitan hizkuntza-molde edo hizkera desberdinak aurki ditzakegu, hizkera tek-

nikotik hasita hizkera arrunt edo jargoiatarak. Baina horiek guztiek helburu bera dute: komunikatzea, halako moldez non mezua hartzaileengana iritsiko den, hura ulertzeko baldintzarik egokienetan.

### **2. HIZKERA PARLAMENTARIOA**

Hizkera parlamentarioa da Legebiltzarrean erabiltzen dena, bai bertako teknikarien eta politikarien aldetik, bai herritarrekiko harremanetarako. Ez da hizkera arrunt baten eta hizkera tekniko baten (juridikoa, ekonomikoa, finantzarioa eta abar) batura; aldiz, berariazko hizkera da, etengabeko sorkuntzan eta eboluzioan, berezkoak ez dituen terminoak ere bereganatzen dituen, beste hizkuntza batzuetakoak, gizartean errotzen doazen heinean.

Gida honen xedea da teknikariek eta politikariek tresna praktikoa izatea eskueran, beharrezko desegokitasunak saihestuko dituen eta bai emakumezkoak bai gizonezkoak ikusgai egingen dituen hizkera erabiltzeko.

Kontsultaturiko eskuliburu, gida eta pertsona aditu guztiak bat datoz honetan: administrazio-hizkerak argia, laua, laburra eta zehatza izan behar du. Hauek dira ematen dituzten gomendioak: esaldi laburrak eta adierazkorak erabiltzea, anbiguitasunik gabeak; termino teknikoak erabilera mugatua eta esaldien hurrenkera logikoa; formula erredundante, arkaismo eta latinismoen erabilera saihestea, edukiaren zehaztasuna.

Finean, erakundeak helarazi nahi duen mezuan kontzentratzeko eta mezu hori egiazki ulertzeko modua ematen duen hizkera, gramatika-egitura egokiak eta hitz aproposak erabiltzen dituen.

### **3. SEXISMOA HIZKUNTZAREN ERABILERAN**

Gizartean gertatzen diren aldaketek eragin zuzena dute hizkuntzan, nahiz eta aldaketa horiek

guztiak ez diren islatzen egokitasun eta lastertasun berarekin.

Gure iragan hurbilean, emakumeek bigarren mailako eta mendekotasuneko zeregina izan dute gizonen aldean, eta batzuei nahiz besteei esleitzen zitzaizkien rolek gizonen emandako balio handiagoa eta emakumeengandik eskaturiko zereginen gutxiagotasuna islatzen zuten. Emakumeak espazio pribatuetara zokoratuak izaten ziren, eta haien plazaratzea zigortu egiten zen, espazio publikoak ia-ia gizonezkoentzat soilik gordetzen baitziren. Hizkuntza ere bazterketa-prozesu horiekin bateratsu joan izan da, eta hala antzeman daiteke “mujer pública” eta “hombre público” esapideei darien irizpen ezberdinean. Adibide horretan ikus daiteke nola hizkuntzaren erabilera gizonen egoeraren indargarri gertatzen den, eta emakumeak toki aurreikusi batera itzultzen dituen.

Emakumeei buruzko ikuspegi atzerakoi eta diskriminatzaile hori hizkuntzatik aurkezteari esaten zaio “hizkuntzaren erabilera sexista.” Gaztelaniaren Errege Akademiaren hiztegiaren arabera, sexismoa da sexu bateko pertsonak diskriminatzea sexu horri gutxiagotasunezkoztat irizteagatik beste sexu baten aldean. Hori dela eta, esaten dugu sexista dela bi sexuetakoa bat ezkutatu edo diskriminatzen duen diskurtsoa eta hizkuntza-erabilera, nahiz eta hizkuntzaren azterketatik ondorioztatzen den gure herrialdean sexismoa beti baliatzen dela emakumeen kaltetan.

Ikusezintasun-jarrerak gorabehera, ukuezina da emakumeen posizioak aurrera egin duela esparru guztietan. Espazio publikoan duten tokia eztaba daezina da gizartearen gehiengo zabal batentzat, nahiz eta ez izan ekitatiboa gizonezkoek espazio pribatuan duten tokiarekin alderatuta. Edonola ere, emakumeek gizartean duten parte hartzearen eta haien bizimoduaren eraldaketa horrek erantzun bat eragiten du halaber, hizkuntzaren erabilerari ere dagokiona, emakumeak nabarmetzen dituen gaur egun betetzen duten tokian, haiek ikusgai eginez eta baztertu gabe. Finean, diskriminaziozko hizkuntza-erabilera bat atzean uztea eta hortik emakumeak eta gizonezkoak berdintasunez irudikatzen dituen hizkuntza-erabilerara igarotzea.

Hala ere, adostasuna eta borondatea dagoen arren hizkuntzaren erabilera “tradizionala” aldatu eta egungo testuinguru sozialaren errealitatera egokitzeko, inertiak eta ohiturak behartu egiten dute arau berrien erabileran treba gaitzean, hizkuntza baztertu eta gutxiegi erabiltzen dela egiaztatetik abiatuta, hitz berririk asmatzen ibili beharrik gabe; izan ere, aprobeixatu beharreko aberastasuna dauka gure hizkuntzak.

Badugu nazioko eta nazioarteko arau-multzotzat ere, beharrezkoak diren neurriak hartzea bultzatzen gaituena hizkuntza-mailan herritarrekin dugun harreman-moldea eguneratzeko eta, hala, gure politika publikoek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin duten konpromisoa indartzeko.

#### 4. ERREFERENTZIAZKO ESPARRUAK

Europar Batasunaren arabera, emakumeek “egiturazko diskriminazioa” jasaten dute, ezinbestean esku-hartze politikoaren bidez amaiarazi beharrekoa. Berdintasun politikak, horrenbestez, nahitaezko tresna dira berdintasunera iristeko, baita sexuagatikoa ere, Espainiako Konstituzioaren 14. artikuluan jasotzen den moduan.

Berdintasun politiken funtsezko alderdi bat da harremanetarako eta komunikaziorako ereduak aldatzea, barneratzaileak izan daitezen eta ez dezaten inongo gizatalderen edo talde sozialen diskriminaziorako biderik eman. Hizkuntzak, komunikazio-tresna den aldetik, berdintasunez irudikatu behar ditu emakumeak eta gizonak, eta berdinen arteko gizarte bat sustatzen lagundu behar du.

##### 4.1. NAZIOARTEKO ESPARRUA

Berdintasun politiken jatorria da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipio juridikoa, hala jasotzen baitu, besteak beste, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak (Nazio Batuak, 1948).

1975az geroztik, Nazio Batuak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aitortza unibertsalaren alde lanean ari dira, garapen sozialaren oinarri gisa. 1979an onetsi zen Emakumearen Kontrako Diskriminazio-modu oro Desagerrarazteko Konbentzioa (CEDAW), zeinak sexuan oinarrituz eginiko bereizketa, bazterketa edo murrizketa oro debekatzen baitu, alor guztietan, emakumeen giza eskubide eta oinarrizko askatasunak galarazi edo deuseztatzen dituen.

Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundearen (UNESCO) 1987ko 14.1 Ebazpenak gomendatzen du UNESCOren lanagiri guztiak idazterakoan politika bat aplikatzea bideratuta egonen dena ahal den neurrian ekiditera sexu bakar bati erreferentzia esplizitua edo inplizitua egiten dioten terminoak erabiltzea, salbu eta emakumearen aldeko neurri positiboak direnean hizpide. Geroago, UNESCOk eskuliburu bat argitaratu zuen, berak barne kontsumorako prestua, sexismorik gabeko hizkera erabiltzeko gomendioak biltzen zituen. Hura izan zen hizkuntza ofizial guztietan, gaztelania barne, onartutako

hizkera inklusiboko lehenbiziko gida.

#### 4.2. EUROPAKO ESPARRUA

Hizkuntzak berdintasunerako tresna gisa duen balioaren lehen aipamena Europako Kontseiluko Ministroen Batzordearen 1990eko otsailaren 21eko bileran aurki dezakegu; izan ere, hartan erabaki zen hizkuntzaren erabilera ez sexista sustatzea, ahal zen neurrian, halako moldez non gizonen maila berean aintzat hartuko baitziren emakumeak gizartean duen presentzia, egoera eta eginkizuna; halaber, erraztea sexuen berdintasun printzipioaren arabera izan zedin testu juridikoetan, Administrazio Publikoan eta hezkuntzaren alorrean erabilitako terminologia; eta hedabideetan sexismorik gabeko hizkera sustatzea.”

2007ko azaroaren 21ean, Europako Kontseiluak ulertu zuen hizkeraren sexismoa oztopoa zela berdintasunaren garapenerako, eta gizateriaren erdia ezkutatu eta ukatzen zuela. Hala, hiru neurri aplikatzea proposatu zien estatu kideei:

– *Ekimenak abiaraztea, emakumeek gizartean duten presentzia eta egoera aintzat hartuko duen sexismorik gabeko hizkera bat erabiltzekoak.*

– *Testu juridikoetan, hezkuntzakoetan eta Administrazio Publikoetan sexuen arteko berdintasunaren printzipioaren arabera terminologia erabili dadin sustatzea.*

– *Komunikabideetan sexismorik gabeko hizkuntza erabili dadin sustatzea.*

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna Europar Batasunaren fundaziotiko balioetako bat da. Hala jasotzen da Europar Batasunaren Tratatuaren 2. eta 3.3 artikuluetan.

2008ko otsailean, Europako Parlamentuak “Sexismorik gabeko hizkerari buruzko txostena” 1 onetsi zuen. Bertan honakoa gogorarazten da: “Sexismorik gabeko hizkeraren edo generoaren aldetik neutrala den hizkeraren xedea da sexu bat bestearen gainetik dagoela inplikatzeko lerratzat, diskriminatzailetzat edo beheratzailetzat har daitezkeen aukera lexikoak ekiditea; izan ere, testuinguru gehienetan pertsonen sexua muntagabea da, edo hala izan beharko luke. (...) Hizkera neutral batek aukera gehiago du erabiltzaileek onartua izateko baldin naturala eta diskretua bada. Egiazko alternatiba neutral eta inklusiboak bilatu behar dira, ezbaia sor dezaketen adierazpideen ordez”.

2010az geroztik, Europar Batasunaren bide-orriak ulertzen du bere lehentasuna dela genero-berdintasuna bere politika guztietan txertatzea;

baita hizkuntza-erabilera inklusiboa ere, arloartekotasunez.

#### 4.3. NAZIOKO ESPARRUA

Lehen aipatu bezala, Espainiako Konstituzioak berak 14. artikuluan xedatzen duenez, “*espainiarrak berdinak dira legearen aurrean; debeku da, bada, inolako diskriminaziorik egitea jaiotza, arraza, sexua, erlijioa, pentsamoldea edo beste edozein tasun edo inguruabar pertsonal edo sozial dela eta*”. Horrekin bat eginez, 9.2 artikulua aitortu egiten du botere publikoen betebeharra, “*inguruabar zehatzak sustatzeko, gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eragingarriak izan daitezen*”.

Gizon-emakumeen Aukera Berdintasunerako I. Planak, Ministro Kontseiluak 1987an onetsitakoak, jada aipatzen du neurri bat, Administrazioa hizkuntza-erabilerekin zerikusia duena: “*Horrenbestez, administrazio-hizkera berritzeko abian jarri den prozesu honetan jasoko da era horretako diskriminazioen kontrola eta, kasua bada, deuseztatzea, Administrazioak erabiltzen dituen zirkular, inprimaki eta formularioetan*”.

Lehendabiziko arau horren ondotik beste batzuk onetsi ziren, hala nola Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren 1995eko martxoaren 22ko Agindua, titulu akademiko ofizialak haien eskuratzailen gizon edo emakume izaeraren arabera egokitzekoak.

Geroago, Emakumeen eta Gizonen Egiazko Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak halaxe jaso zuen 14.11 artikuluan: “*Sexismorik gabeko hizkera bat ezartzea Administrazioaren esparruan, eta hura sustatzea harreman sozial, kultural eta artistiko guztietan*”. Hori legeagindu bat da, hura administrazio publiko guztietan erabiltzekoa.

#### 4.4. ERKIDEGOKO ESPARRUA

Hizkuntzaren erabilera ez sexistari edo hizkera inklusiboari buruzko erreferentzia nagusiak esparru geopolitiko gorenetan aurkitzen ditugu. Maila autonomikoan, Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasuna Sustatzeko azaroaren 28ko 33/2002 Foru Legeak ezartzen du Administrazioa dokumentuak berrikusteko beharrezana, ziurtatze aldera haietan erabiltzen den hizkera sexismorik gabekoa izatea.

Horretaz gain, badira zenbait eskuliburu, hala nola Guía sobre estrategias de comunicación incluyendo izenekoak, zeinaren xedea baita ikusezi-

na dena ikusaraztea, generoari dagozkion gaiak agendarako proposatzea eta erakundeek eta hedabideek agendak eraikitzea, errealitate bukatugabe horren ikuspegi berri bat finkatzeko eta irizpide komun bat zehazteko bidea emanen dutenak.

#### 4.5. NAFARROAKO PARLAMENTUAREN ESPARRUA

Nafarroako Parlamentuko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana.

### 5. HIZKERA INKLUSIBOA

Hizkuntzaren erabilera ez sexistaren eta hizkera inklusiboaren helburu nagusia da emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzea, Emakumeen eta Gizonen Egiazko Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak adierazten duen moduan.

Horrenbestez, hizkera inklusiboaren oinarria da emakumeak diskriminatzen dituen hitzik ez erabiltzea, baina baita ere hizkuntza ez izatea kultura eta pentsamendu androzentrikoaren zerbitzura dagoen tresna bat, zeina baita gizonezkoei gizar-teko edo botereko erdigunea ematen diena eta gramatika-genero maskulinoa generiko edo neutro gisa erabiltzen duena. Hizkera berdinzale edo ez baztertzaila erabiltzea lagungarria da estereotipoak ez betikotzeko, emakumeak nahiz gizonezkoak aipatzeko eta ikusezintasunarekin nahiz aurreiritzi sexistekin mozteko, bai pentsamenduaren lanketan bai diskurtsoa eraikitzean ere, emakumeak eta gizonezkoak barne hartzen dituzten terminoak erabilia.

Gida honen xedea da Parlamentuko teknikoei eta politikoei lan tresna argigarri eta erabilgarri bat eskaintzea, ahalbidetuko diena dokumentuak berrikusi eta idaztea hizkera inklusiboa erabiliz, sexismorik gabeko administrazio-hizkeraren erabilerari buruzko irtenbide praktikoa eta didaktikoekin, halako moduz non eguneroko lan parlamentarioan sor daitekeen edozein egoera konpontzeko gai izanen diren.

#### 5.1. ERABILERA SEXISTAK

Ondoren aurkezten ditugu hizkuntzaren ohiko zenbait erabilera, sexistak direnak eta baliagarriak izan ahal zaizkigunak guk geuk egiten dugun hizkuntza-erabilera aztertzeko. Halako sexismoa erakundearen komunikazio-modua denean, emakumeen diskriminazioa sustatzen ari da.

#### – Generiko faltsuak.

Askotan, hitz batzuk erabiltzen ditugu, hertsiki hartuta maskulinoak diren arren generiko gisa aurkezten zaizkigunak. Sarriago erabiltzen da “el hombre” edo “los hombres” “humanidad” hitzaren sinonimo gisa.

Horren ildotik, maskulinoa generiko gisa erabiltze hori ohikoa da inprimaki askotan, hala nola eskabideetan, salaketetan, zinpeko aitortpenetan eta abarretan. Zenbait hitz (el beneficiario, el interesado...) gizonezkoei eta emakumeei buruzkoak dira. Horri esaten zaio maskulinoaren gehiegizko erabilera generiko gisa. Administrazio-akzioen bi sexuak hartzen dituzten formulak edota kasuko gramatika-generoa erabili behar dituzte.

#### – Ustezko dualak.

Maskulinoa erabilia edo femeninoa erabilia esanahi desberdina duten terminoen erabilera da. Sarri emakumeekiko balorazio gutxiesgarriekin lotura dute gainera:

Sargento - Sargenta  
Hombre Público – Mujer Pública

Halaber, lanbideak izendatzen dituzten hitzak izaten dira –“**hitz okupatu**” bezala ezagutzen dira– eta forma femeninoak gutxiagotasun eta negatibotasun nabarmena adierazten dute.

Gobernante-Gobernanta  
Asistente-Asistenta  
Secretario-Secretaria

Azken adibide honetan, “secretaria” da administrazio-lanez arduratzen dena; aldiz, “secretario” irakurrita, ulertzen dugu ardurazko eta/edo konfiantzazko kargu bat duena dela.

#### – Deitura sexuduna.

Kasu horretan, gizonezkoak definitzeko, haien ogibidea, kargua edo errepresentazioa erabiltzen da; emakumezkoak, aldiz, beren sexuaren edo gizonezkoarekin (aita, senarra...) duten loturaren arabera izendatzen dira. Adibidez:

El Parlamento otorgará reconocimientos a los voluntarios: una mujer y dos policías.

En el accidente fallecieron un vecino y su hija.

#### – Aposizio erredundanteak.

Horrelako kasuetan, emakumezko sexu-izaera beharrik gabe gehitzen da, kasuko aferan pertinente diren beste ezaugarri batzuekin batera. Artikulu gramatikalaren erabilerak jada adierazten du nori buruz ari garen. Adibide bat: “Las mujeres periodistas en zonas de conflicto sugieren medi-

das” esatea “Las periodistas en zonas de conflicto sugieren medidas” esan ordez.

#### – Aurkezpenaren hurrenkera.

Baita bi terminoak edo hizkuntza-irudikapenak edo dual maskulino-femeninoak erabiltzen ditugunean ere, joera dugu maskulinoa aurretik jartzeko: los niños y las niñas, los padres y las madres. Hori uler daiteke hierarkia gisa edo gizonezkoek emakumeen aldean lehentasuna izate gisa. Alternatiba gisa, gomendioa da postu gramatikalak txandakatzeari: los niños y las niñas, las niñas y los niños...

### 5.2. HIZKERA INKLUSIBOA ERABILTZEKO TEKNIKAK

Europako Parlamentuaren Hizkera ez sexistari buruzko Txostenaren konklusioen arabera, “bi sexuetako kideak biltzen dituzten taldeetarako, genero maskulinoa ‘inklusibo’ edo ‘generiko’ gisa erabiltzen da; aldiz, genero femeninoa ‘baztertzalea’ da, hau da, soilik emakumeak aipatzen ditu. Genero maskulinoaren erabilera generiko edo neutrala gero eta gehiago ulertzen da emakumeen aurkako diskriminazio gisa”.

Horrenbestez, beharrezkoa da zenbait estrategia, teknika eta orientabide ezartzea, Nafarroako Parlamentuan erabiltzen dugun administrazio-hizkeraren bitarteko emakumeen aurkako diskriminazio oro ezabatzeko. Hona hemen batzuk:

#### 1. Izen generikoak eta kolektiboak erabiltzea

Erabili	Ez erabili
La persona interesada	El interesado
Las personas demandantes	Los demandantes
El profesorado	Los profesores
El empresariado	Los empresarios

**Izen generikoak** bi sexuei buruzkoak dira, generoa alde batera utzita: Cónyuge, Persona, Personaje, Criatura, Víctima...

**Izen kolektiboak** entitate bera duten pertsonaltalde bat izendatzen dute: Clientela, Público, Alumnado, Linaje, Sociedad, Funcionariado, Tropa, Profesorado, Familia, Plantilla...

#### 2. Perifrasiak erabiltzea

Erabili	Ez erabili
Las personas que ejercen la abogacía	Los abogados
El personal docente	Los docentes
El ser humano	Los hombres
El personal administrativo	Los administrativos

### 3. Egitura metonimikoak erabiltzea

Erabili	Ez erabili
La dirección	Los directores
La portavocía	Los portavoces
La coordinación ha felicitado...	Los coordinadores han felicitado...
La Presidencia de la Comisión	El Presidente de la Comisión

### 4. Agintera erabiltzea

Erabili	Ez erabili
Envíe su curriculum a...	El candidato debe enviar su curriculum a...
Utilicen la vía...	Los conductores utilizarán la vía de...

### 5. Pasiboaren erabilera:

Erabili	Ez erabili
El formulario será presentado el día...	El solicitante debe presentar el formulario el día
Los requisitos exigidos para el acceso	Los aspirantes cumplirán unos requisitos para acceder

### 6. Pasibo inpersonala edo erreflexua erabiltzea (“se” duten egiturak)

Erabili	Ez erabili
Se dictará sentencia judicial	El juez dictará sentencia
Se solicitarán las plazas en los centros...	El usuario solicitará plaza en los centros...
Se deberá poner la reclamación en...	El afectado pondrá la reclamación en...
Se dispondrá de varias opciones	El ciudadano tendrá a su disposición varias opciones

### 7. Aditzaren forma ez pertsonalak erabiltzea

Erabili	Ez erabili
Es necesario tener en cuenta	El solicitante tendrá en cuenta
Deberá prestarse atención a...	El solicitante prestará atención a...

### 8. Genero-markarik gabeko mugatzaileak erabiltzea edota mugatzailea ez aipatzea amaiera bakarreko izenen kasuan

Erabili	Ez erabili
Cada miembro de la Mesa recibirá	Todos los miembros de la Mesa recibirán
Firmarán titulares de recibos y domiciliaciones	Firmará el titular del recibo domiciliado
Convocar a sindicalistas y representantes	Convocar a los sindicalistas y los representantes

### 9. Bikoizketak

Sexuen arteko oposizioa testuko alderdi esanguratsua denean izan ezik (adibidez, “la ratio de alumnos y alumnas”), bi genero gramatikalak erabiltzea saihestuko da. Hala ere, beti da egokia goa bikoizketa, maskulinoa soilik erabiltzea baino.

Bi genero gramatikalak erabiltzen direnean, beharrezkoa da haiek tartekatzea, horietako bati lehenetsunak ez emateko bestearen gainean.

Erabili	Ez erabili
Las parlamentarias y parlamentarios	Los parlamentarios
La ciudadanía / Las y los ciudadanos/ Los y las ciudadanas	Los ciudadanos
Las personas que aspiran a la plaza de...	Los aspirantes a la plaza de...

### 10. Barrak

Barra bidezko bikoteak saihestea komeni den arren, baliagarriak dira tokia aurrezteko, batez ere izaera irekiko administrazio-dokumentuen goiburu koetan eta sinaduretan (gutunak, eskabideak, inprimakiak eta abar). Barren erabilera onargarria da arrazoizkoa bada, baina ez dokumentuetan ohiko moduan erabiltzeko teknika gisa; izan ere, hala erabiliz gero irakurtezinak izanen lirateke.

Erabili	Ez erabili
La/El abajo firmante	El abajo firmante
Srs. /Sr.	Sr.
Las/los usuarios	Los usuarios
El/la director/a	El director

### 11. “Hombre” terminoa balio generikoarekin erabiltzea

Gizakiaz ari garenean, ez dira erabili behar “hombre” edo haren plural “hombres” terminoak, nabarmen baztertzaileak direlako; izan ere, gizateria gizonek eta emakumeek osatzen dute.

Erabili	Ez erabili
La persona	El hombre
Las personas/ los seres humanos/ la humanidad	Los hombres
El empresario	Los hombres de negocios
La infancia	El niño

### 12. Izenordain erlatiboak erabiltzea

Ez da gomendagarria izenordain erlatibo artikulatu maskulinoaz laguntzea, forma femeninoa baztertzen duelako. Aldiz, “quien” eta “quienes” erlatibo atonoen erabilerak bi generoak hartzen ditu.

Erabili	Ez erabili
Quienes utilicen los servicios	El que utilice los servicios
Quien solicite la ayuda	El que solicite la ayuda
Serán quienes firmen los contratos	Serán los que firmen los contratos
Quien se beneficie de la actuación	El beneficiario de la actuación

### 13. Teknikak konbinatzea

Maskulinoa generiko gisa erabiltzea saihestea

Erlatiboa erabiltzea 'quien/es'	Generikoak eta abstraktuak erabiltzea	Ez erabiltzea 'que' erlatiboa + artikulua
Quien haya solicitado la comparecencia	La persona solicitante de la comparecencia	El que ha solicitado la comparecencia

Erlatiboa erabiltzea 'quien/es'	Generikoak eta abstraktuak erabiltzea	Zehaztugabe maskulinorik ez erabiltzea
Quienes asistan tienen	Las personas asistentes tienen	Todos los asistentes tienen

Subjektu maskulino baztertzailerak saihestea, aditz-forma neutroak erabiliz

Erabili	Ez erabili
Se podrá recurrir	El demandante podrá recurrir
Quien tenga interés debe presentar	El interesado deberá presentar
Solicitarán la petición quienes	El ciudadano solicitará la petición
Deberán justificarse las ausencias...	Los trabajadores ausentes justificarán...
Las ausencias se justificarán ante la Jefatura	El jefe pedirá justificantes por ausencias

**14. Ez da gomendagarria a bildua erabiltzea, ez eta egoera zibilaren aipamena egitea ere**

A bildua sinbolo bat da, eta ez gramatika-zeinu bat. Espainiako Errege Akademiak (RAE) ez du onartzen hura erabiltzerik, posta elektronikoko helbideetan izan ezik.

Egora zibilaren aipamena –señora/sra./señorita/srta./señor/sr.– desegokia da, salbu eta ezinbestekoa bada ziurtagiri edo antzekoren bat lortzeko, eta kasu horretan “sr./sra.” erabiliko litzateke. Tratamenduen kasuan, zaharkituta dago, eta urteak dira ezabatu zela pertsonen zuzentzerakoan; horren ordez izen osoa erabiltzen da.

**5.3. LANPOSTUAK ETA ERANTZUKIZUNEN KARGUAK**

Emakumeak lan merkatuan sartzeko haiek izendatzeko terminoen aldaketa nabarmena eragin du. Horietako lehena izan zen 1995eko martxoaren 22ko AGINDUA, zeinaren bidez egokitu baitzen titulu akademiko ofizialen izendapena haiek lortzen zituenaren gizon- edo emakume izaerara. Hain zuzen, horrek bidea eman zuen tituluak femeninoan emateko (graduada, técnica, licenciada, doctora, ingeniera, arquitecta).

1996an, Emakumearen Institutuak ogibide, kargu eta lanbideen katalogo bat argitaratu zuen (“De la A a la Z. Profesiones en Femenino”), zeina 2007an eguneratu baitzen (“En femenino y en masculino, Las profesiones de la A a la Z”, Lenguaje saileko 4. zenbakia, MATSek argitaratua). Bestalde, Espainiako Errege Akademiaren hiztegiak zenbait termino femenino sartu zituen 2001ean (decana, jueza, ministra, geóloga, eta abar), nahiz eta oraindik ere kontraktasun handia dagoen zenbait jarduera profesional izendatzerakoan –hala nola alfarera, alicadora– femeninoak erabiltzeari dagokionez.

Lanbideak izendatzeko maskulinoaren eta femeninoaren erabilera egokitzea eta normalizazioa errazteko, bai eskaintzerakoan bai definitzean, hona hemen lanbide, ogibide eta karguen femeninoak osatzeko modurik ohikoenak.

**5.3.1. Irtenbide bikoitza duten kasuak**

Gaztelaniaz, normalean, hitzen femeninoak osatzeko, -aeransten diogu hitzaren erroari, eta maskulinoak osatzeko, -o eransten diogu. Kasu gehienetan, lanbide, ogibide eta karguen femeninoak modu berean osatzen da. Hona hemen osaera ohikoenak:

a) **-a/-o** amaiera duena

Arquitecta - Arquitecto

Maestra - Maestro

– **a/-o** amaiera duten zenbait osaera erregular aurkitzen ditugu

– **era/-ero**: Cocinera - Cocinero

– **ana/-ano**: Decana – Decano (diácono izan ezik, zeinaren femeninoak diaconisa baita)

– **óloga/-ólogo**: Psicóloga – Psicólogo

– **ónoma/-ónomo**: Agrónoma - Agrónomo

– **ógrafa/-ógrafo**: Fotógrafa - Fotógrafo

– **aria/-ario**: Funcionaria – Funcionario

– **ada/-ado**: Magistrada - Magistrado

– **ica/-ico**: Médica – Médico

b) Zenbait kasutan maskulinoak **-erØ** da

Cancillera - Canciller

c) Horzkarian (t edo d) amaitutako osaera erregularra + **-ora/-or (-tora/-tor; -dora/-dor)**. Kasu horretan, maskulinoaren marka **-Ø** da berriz ere.

Traductora – Traductor

Redactora - Redactor

Kasuren batean, femeninoak **-iz** amaiera du

Actriz - Actor

Emperatriz- Emperador

Aprendiz-en kasuan, mugatzailea izanen da femeninoak edo maskulinoak adieraziko duena.

d) **-ana/-ón** amaiera duen osaera erregularra

Comadrona – Comadrón

Peona - Peón

e) **-ana/-án** amaiera duen osaera erregularra

Guardiana – Guardián

Capitana - Capitán

f) **-enta/-ente** amaiera duen osaera erregularra

Presidenta – Presidente

Dependiente - Dependiente

Gerente, agente, asistente, ponente edo dirigente bezalakoetan, mugatzaileak zehaztuko du (el/la, todos/todas).

g) **-anta/-ante** amaiera duen osaera erregularra

Delineanta- Delineante

Amateria hori dutenen artean badira dibujante, cantante edo enseyante bezalakoak, mugatzailea behar dutenak maskulinoa edo femeniinoa den adierazteko.

Aparteko aipamena behar du gobernanta hitzak; izan ere, hitz hori egon badagoen arren, gutxiesgarri gisa edo balorazio sozial txikiagoarekin erabili ohi da.

– **-ila/-il** amaiera duen osaera erregularra

Edila – Edil

– **-ela/el** amaiera

Bedela - Bedel

Nahiz eta salbuespen ugari aurkitu, hala nola timonel.

**5.3.2. Genero komuna duten kasuak**

a) Badira zenbait lanbide eta ogibide, amateria berbera dutenak femeniinoa nahiz maskulinoa adierazteko.

– **-a** amaiera: Guía, Atleta

– **-oz** amaiera: Portavoz

– **-atra** amaiera: Foniatra

– **-ista** amaiera: Periodista

– **-ópata** amaiera: Homeópata

– **-al** amaiera: Profesional (salbuespena: Concejala).

– **-e** amaiera: Intérprete

– **-o** amaiera: Sobrecargo

## b) Erdarakadak

Gaztelania oso aberatsa bada ere, gero eta erdarakada gehiago sartzen dira gure hiztegian, eta lanbide eta ogibide batzuen izenak ere ez daude eragin horretatik aske. esteticién, soprano, chef, maniquí, barman, chofer.

c) Objektu-izenetatik datozen izendapenak: guardabosque, lavacoches, botones.

**5.3.3. Ikastaroen eta lanpostuen eskaintza eta eskaera**

Prestakuntza eta enpleguaren eskaintza eta eskaeretan beti hartu behar dira aintzat forma maskulinoa eta femeniinoa; ahal den neurrian, modu osoan:

Administrativa – Administrativo

Jardinera – Jardinero

**6. BIBLIOGRAFIA**

– Guía de uso no sexista del vocabulario español. Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Unitatea. Murtziako Unibertsitatea, 2011.

– Manual sobre el uso no sexista del lenguaje administrativo. Ekintza Sozialeko, Emakume eta Familia Zinegotzigoa. Valdemoroko Udala, 2011.

– Guía para un uso del lenguaje no sexista en las relaciones laborales y en el ámbito sindical. Guía para delegadas y delegados. Emakumearen Idazkaritza Konfederala. CCOO. Hirugarren argitaraldia, zabaldua eta eguneratua, 2010.

– Manual de lenguaje no sexista en la Universidad Politécnica de Madrid. Berdintasunerako Unitatea. Madrileko Unibertsitate Politeknikoa, 2010.

– Informe sobre el lenguaje no sexista en el Parlamento Europeo. Genero Berdintasunerako eta Aniztasunerako Goi Mailako Taldea erabakiaren bidez onetsia. 2008ko otsaila.

– Guía sindical del lenguaje no sexista. Berdintasunerako Idazkaritza. UGT, 2008.

– Manual del lenguaje administrativo del Ayuntamiento de Madrid. Idatzizko komunikaziorako teknikak. Ogasuneko eta Administrazio Publikoko Gobernu-alorreko Kalitate eta Berrikuntzako Zuzendaritza Nagusia. Madrilgo Udala eta Juan Carlos Erregea Unibertsitatea. Bigarren argitaraldia, berrikusia, 2008.

– Ministroen Batzordearen 17/2007 MK/GOM Gomendioa Estatu kideentzat, gizonen eta emakumeen berdintasuna sustatzeko mekanismoei eta araei buruzkoa. 2007ko azaroa.

– Las profesiones de la A a la Z. En femenino y en masculino. Lenguaje Sails, 4. zenbakia. Eulàlia Lledó Cunill. Emakumearen Institutua. Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa, 2007.

– nombra.en.red. En femenino y en masculino. Lenguaje Sails, 3. zenbakia. Emakumearen Institutua. Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa, 2007.

– Lenguaje administrativo no sexista. Andaluziako Emakumearen Institutua. Berdintasunerako eta Gizarte Ongizaterako Departamentua eta Ekonomia eta Ogasuneko Departamentua, 2006.

– Guía de lenguaje no sexista. Berdintasunaren bulegoa. UNED, 2002.

– Nombra. En femenino y en masculino. Emakumearen Institutua. Gizarte Gaietarako Ministerioa, 1995.

– Manual lenguaje administrativo. NAPI, 1990.

– Recomendaciones para un uso no sexista del lenguaje. Unesco. Egunik gabe

– Guía para la utilización de un lenguaje inclusivo en el Ayuntamiento de Madrid y sus OO.AA. 2017.

